

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteazkena, 2011ko irailaren 14a. VIII. urtea. 2.272. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Jubilatu eta pentsiodunak beren eskubideak defendatzen jarraitzen dute

LAB sindikatuak deituta helduenek batzarrak egiten dituzte hilero herri desberdinetan, eta atzokoan Tolosako Kultur Etxean izan zuten hitzordua

Bilkura eta gero, elkarretaratzea egin zuten Trianguloan «borrokan tinko» jarraituko dutela aldarrikatzeko; hurrengo bilkura Ordizian izango da urriaren 26ean **04**



Tolosako Trianguloa plazan egin zuten atzo, elkarretaratzea, bilkura bukatu ostean. E. MAIZ

Tolosaldeko turismoa %40 igo da uztaila eta abuztuan

Ia 12.000 bisitari izan dira eskualdean uda honetan; Tolosako Aranburu jauregiko erakusketek eta Txindoki inguruak erakarri ditu turista gehien **02-3**



Bi turista atzo, Tolosako bulegoan informazioa begiratzen. I. GARCIA

Oporrak Bakean ekimena indartuz doala diote antolatzaileek


8 eta 12 urte bitarteko 18 haur saharar izan dira eskualdean uda igarotzen; inoizko parte-hartzaileena izan da ekimenaren aurtengo edizioa **06**



Abel Barriola Pilotaria

«Orain eskumuturrak ongi erantzutea da garrantzitsuen»

Leitzarra denboraldia hasteko gogoz dago; astelehenean jantziko da berriz ere, zuriz, Logroñoeko San Mateo Txapelketan **07**



la 12.000 bisitari gurean

Iazko datuekin alderatuta, %40ko igoera jasan du Tolosaldeko bisitari kopuruak, uztaila eta abuztuan

Aranburu jauregia eta Txindoki ingurua izan dira lekurik bisitatuenak

Itzea Urkizu Tolosa

Krisi garaia gizartearen ohiturak aldatzen dituen arren, aurtengo uda oparoa izan da Tolosaldearentzat turismoari dagokionez: iazko bisitari kopurua nabarmen igo da uztailan eta abuztuan. Santa Maria plazan, Trianguloan eta Abaltzisketa-Larraitzen jasotako datuen arabera, 11.878 bisitari izan ditu eskualdeak; 2010ean baino %40 gehiago. Aipatzekoa da, eskualdetik etorritako bisitari kopurua jaitasi egin dela, baina Euskal Autonomia Erkidegoko turista gehiago etorri dira Tolosara eta inguruetara, oporrak pasatzera.

Alde handiarekin, gipuzkoarrek izan dira, batez ere, bertaratu direnak. Dena den, Tolosaldea Tour-eko arduradunek diotenez, bizkaitar nahiz arabar gehiago etortzen da urtetik urtera.

Herrialde Katalanetatik, urteroko moduan, bisitari asko etorri da Euskal Herrira, eta zehazki gure eskualdera. Iazko 1.500 bisitariak gainditu dituzte, eta 2.066 lagun bertaratu dira Herrialde Katalanetatik.

Estatuko turistak ere izan dira eskualdeko paraje eta txokoak ezagutzen, eta Aragoitik nahiz Madrildik bisitari asko hurbildu dira: 174 eta 613 lagun, hurrenez hurren.

Europara begira jarri gero, turisten igoera ere errepikatu egin da. Frantziarrak izan dira gehienak, baina turista alemaniarrek eta britainiarrek ere izan dira Tolosaldea ezagutzen, besteak beste. Nazioarteko turistak hainbeste

te izan ez diren arren, Hegoameriketako bisitari kopuruak ere gora egin du iazko datuekin alderatuta.

Kultura bai, natura ere bai

Tolosaldeak turismoa egiteko modu desberdinak eskaintzen dituen arren, Tolosaldea Tour-eko arduradunek bisitari mota bat nabarmendu dela azaldu dute: haurrak eta helduak izan dira Gipuzkoako bihotza ezagutzera etorri direnak. Familiako turismoa izan da, beraz, nagusi.

Alde batetik, eskualdeko kultur eskaintza erakargarria suertatu zaie bisitariei. Horrela beraz, Gorrotxategi Konfitegia Museoa eta Aranburu jauregia izan dira turista gehien jaso dituzten lekuak.

Uda honetan, urteroko bisita gidatuez gain, bisita libreak egiteko aukera ere eskuragarri izan da Gorrotxategi museoan. 10:00eta-

Euskaldunen artetik, gipuzkoarrek dira Tolosaldea gehien bisitatzen dutenak

Menchu Gal-en erakusketak 1.000 bisitatik gora jaso ditu ireki zutenetik

tik 14:00etara egon da zabalik, eta nabarmena izan da, joan den urtearekin alderatuta, bisitari kopuruaren igoera; 651 lagunek ikusi dute museoa.

Gauza bera gertatu da Aranburu jauregian ere. Uztailan eta abuztuan bi erakusketak izan dira ikusgai, eta batak zein besteak,



Mariren Zuhaiztia leku erakargarria da haur eta gaztetxoentzat. I. GARCIA

bisitari ugari erakarri du. Menchu Gal-en *Kolorearen poza* erakusketak bisitari gipuzkoarrek bildu ditu batez ere, eta 1.189 lagun pasa dira bertatik, koadroez gozatzera. Atzeritarren artean, ordea, Tolosako Inauterien inguruko *Jeiki! Jeiki!* erakusketak sortu du ikusminik handiena.

Orain arte aipatutakoaren aurka, Santa Maria elizak ez du halako harrerarik izan kanpotarren artean, aurtien hainbat bisita gidatu eskaini dituzten arren. Turistak XVI. mendeko eraikina barrutik ikusteko informazio bila aritu dira, baina nahiago izan dute tenplua modu librean ezagutu. Datorren urterako bisitak antolatuta beharrean, elizako ateak zabaltzea baloratuko dutela diote arduradunek, izan ere, duela bi urte emaitza hobeak lortu zituzten.

Eskualdeko mendiek eta inguru naturalak oporraldia pasatzeko aukera bat gehiago eskaintzen du. Hain zuzen ere, Larraitzeko Txindokiko Itzala informazio

↓ Uztaila eta abuztuko datuak

Jatorria	Bisitariak 2010	Bisitariak 2011	% Diferentzia
Tolosaldea	2.134	1.428	-33,08
Araba	105	145	38,10
Gipuzkoa	1.703	4.316	153,44
Bizkaia	397	728	83,38
Nafarroa	71	132	85,92
Herrialde Katalanak	1.500	2.066	37,7
Galizia	46	102	121,74
Spainia	1.107	1.440	30
Alemania	109	91	-16,51
Frantzia	652	622	-4,6
Italia	76	104	36,84
Besteak	330	457	38,4
Hegoamerika	132	136	3
Ipar Amerika	54	47	-12,9
Asia	52	46	-11,5
Ozeania	22	18	-18
Guztira	8.490	11.878	40

↓ Okupazioa

LANDETXEAK	Uztaila	Abuztua	Bataz bestekoa %
2009	28	82	55
2010	35,17	75	55,11
2011	37	63	50
HOTELAK	Uztaila	Abuztua	Bataz bestekoa
2009	47	60	54
2010	58,1	74,45	66,28
2011	70	72	71

Iragarki laburrak

SALGAI

• **Quad-a.** 2004 urteko Suzuki LTZ-400 quad-a salgai. IAT pasatu du, osagarri asko ditu eta oso egoera onean dago. Interesatuak deitu 600 752 537 telefono zenbakira.

LANA

• **Lan bila.** Neska euskalduna etxeko lanak egiteko eskaintzen da. Interesa duenak, dei dezala 678 88 97 91 telefono zenbakira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

puntua turismo mota horren bila etortzen diren bisitariei zuzenduta ireki zuten orain bi urte, 2009an. Orduz geroztik, jende asko bertaratuta da, eta bisitarien igoera nabarmenagoa izan da Bizi-biziki enpresaren turismo aktiboko eskaintza dela eta. Horrela beraz, ia baino 900 lagun gehiagok bisitatu dute Txindokiko magala, eta hurrengo urtera begira, eskaintza zabalagoa izateko ideia sortu dela azaldu dute.

Kontsumo ohitura berriak

Bisitari kopuruari begiratueta landetxe nahiz hoteletako okupazioak ere gora egin behar izan duela dirudien arren, ez da hala izan. Okupazioaren portzentaia baxuagoa da aurreko urteetan baino; hala ere, kontuan hartu behar da Berrobiko Teiler landetxe berria dela eta, Tolosaldeak eskaintzen duen ohe kopurua ere handiagoa dela. Horrela beraz, gauraldi kopurua da igo dena, okupazio tasa igo beharrean. Bide horietan, ostalariek uztaila eta abuztuko turista kopuruaren artean

Txindokiko inguruak sekula baino turista gehiago erakarri ditu aurtan

Ostatu eta hoteletako okupazioak ez du hain nabarmen gora egin

Eguneko menuak eta plater konbinatuak dira turistek begirako eskaintzak

gero eta alde txikiagoa dela nabarmen du dute.

Taberna, jatetxe eta merkatariek ere ohitura berriak hartzen hasi dira. Orain artean, Tolosaldeko komertzio, jatetxe edo taberna askok opporak hartzen zituzten abuztuan; orain, ordea, gero eta gehiago dira udako opporretan lanean aritzen diren merkatariei eta ostalariei. Azken hauek, gainera, eskaintza aldatze aldera lanean ari dira, eta gero eta gehiago dira eguneko menuaren edo plater konbinatuaren aldeko apustua egiten ari direnak; azken finean, turistek ez dute karta eskatzen, eta eskaintza merkeen bila aritzen dira.

Hitz batean, eta aipatu bezala, krisiak ez du jendea etxean gertatzea eragin, baina nabari da gastua neurtua dela.

Ostalariek, beren aldetik, garai berrietara egokitzeko ahaleginak egiten ari dira, eta gero eta gehiago dira lanerako internet erabiltzen duten eskualdeko jatetxe, ostatu nahiz tabernak. Tolosaldea Tour-ek, lehiakortasun handiagoa lortzeko bidean, turismo alorreko enpresariei hainbat formakuntza programa eskaintzen dizkie.

Olatz Ilarregi • Tolosaldea Tourreko arduraduna

«Tolosak eta Aralar inguruak erakartzen dituzte bisitariak»

Imanol Garcia

Gustura azaldu da Olatz Ilarregi Tolosaldea Tourreko arduraduna udak eman dituen datuekin. Hailere, okupazio tasa handiagoa izatea nahiko luke.

Zer balantze egiten duzu uda hone-tan jasotako datuen arabera?

Balantze gazi-gozoa da. Alde batetik oso gustura gaude gure bulegoetatik jende asko pasatu delako. Datuak oso onak izan dira. Batez ere Larraitzeko informazio puntuak oso ondo funtzionatu du. Tolosan, Aranburu Jauregiko Menchu Galen erakusketak ere oso ondo funtzionatu du. Bestalde, bisitari kopuruan izandako gorakada hori ez da nabaritu okupazioan. Landetxeetako okupazio tasa zerbait gutxitu da. Hotelak, aldiz, hobexegoa joan dira. Azken hiru urteetan bi hotel berri daude Bidegoianen eta aurtan ireki da beste landetxe bat Berrobiko. Eskaintza zabaltzen ari da eta lehia ere handiagoa da. Bisitari gehiago etorri arren, ohe gehiago badaude, okupazio tasa jaitsi egiten da.

Informazio puntuetatik pasatzen ez diren bisitariak ere izango dira, ezta?

Bai. Guk bulego bat dugu Santa Maria plazan eta udan beste bi jarri ditugu: bat Trianguloan eta bestea Larraitzen. Aurtan Tolosa seinalatzen proiektu bat egin da eta orain ondo seinalizatu daude hainbat leku, planoen eta guzti. Beraz, bisitari denak ez dira pasatzen informazio puntuetatik.

Zertaz nahi izaten dute informatu bisitariak?

Plano bat eskuratu nahi izaten dute. Batez ere Tolosan eta eskualdean zer ikusi daitekeen galdetzen dute.

Eta zer erakartzen ditu turistak eskualdera?

Informazio puntuaren kokapenak erakusten du hori. Tolosa interesatzen zaie, bere azoka, bere Alde Zaharra, historian duen garrantzia, gastronomia aldetik ere garrantzia duelako, Tolosako babarrunak edo txuletak jateko, adibidez. Natura aldetik, Larraitz ingurura jotzen dute, Aralar parke naturalaren sarrera gisa, eta herri txikiak ezagutzeko.

Zer baiten falta somatzen al dute bisitariak?

Beti gertatzen zaigu monumentu historikoak zabaldua egotearen zailtasuna. Adibidez Tolosako Santa Maria parroikia irekita izan genuen ia ordu para batez. Eliza handia da eta jendea kontrolatzea zaila da. Orduan, bisita gidatu gisa eskaini dugu aurtan, baina oso jende gutxi joan da. Ematen



I. GARCIA

duenez, nahiago du azalpen txiki bat jaso eta bisita bere erara egitea. Beraz, horrelako monumentu bat irekita egotea eskatzen dute. Baita Santa Klara komentua edo Amezetako San Bartolome eliza ere.

Zertan da berezia Amezetako San Bartolome eliza?

Argizaiolak ditu eta hilobiak erreztatzeko aukien azpian ikusten dira. Gipuzkoan argizaiolak ikusten diren toki bakarrenetakoa da. Bisitariak ezin dira barrura sartu. Horrelako leku bat irekita izatea arazoa izaten da beti.

Besteak beste, jendea beharko da bertan zerbitzu hori eskaintzeko.

Bai, eta adibidez enplegu programaren bitartez Gorrotxategi museoaan jarri dugu pertsona bat. Berrez itxita izaten da museoa eta alde aurretik deituz gero irekitzen da. Pertsona bat jarri, lortu dugu museoak irekita egotea eta jendea nahi duenean bertara sartzea. Horregatik bisita kopurua askoz handiagoa izan da. Aranburu jauregian ere berdina gertatu da. Tolosako Udalarekin egindako hitzarmen baten bitartez lortu dugu pertsona batek harrera lanak egitea Aranburu jauregiko erakusketetan.

Agian Santa Maria parroikia edo Amezetako San Bartolome eliza irekita izatea zailagoa da?

Ardura puntu hori ere hor dago. Santa Maria aurreko urtean irekita egon zen eta pertsona bat izaten zen bertan, harrera inguruan, baina parroikia oso handia da. Hailere, datoren urtera begira, berriro pentsatu beharko dugu kontu hori, jendeari monumentua irekita egotearen formatu hori gehiago erakartzen diolako. San Bartolome elizari dagokionez ere pentsatu beharko dugu zerbait egitea. Agian, orduetegi murriztu batekin.

Landetxe bat martxan jartzea auzerara onak izango zen egun?

Hamabost bat inguru baditugu eskualdean. Landetxe bat errentagarria ez da bilakatzen guk dauzkagun okupazio tasekin. Beti izaten dira negozio osagarriak. Beste aktibitate bat daukazu eta zure bikotea etxeko ardu-rez gain horretaz ere arduratzen da. Bestalde, osagarria denez, profesionaltasun falta ere nabari-tu daiteke. Landetxe bat martxan jarri eta ez zaizkizu berehala etorriko bezeroak. Saiatu behar duzu gehiago saltzen, Interneten egoten, eta lehia gero eta handiagoa da. Horregatik, guri tokatzen zaigu sektoreari erremintak eta formakuntza ematea bere negozioa eta lehiakortasuna hobetzeko. Norbait etortzen denean landetxe bat jartzeko asmoarekin, jakinaren gainean jartzen dugu, eta esaten diogu zaila dela sei lo-gelekin inbertsioari buelta ematea. Bestalde, oso garrantzitsua da zerbait berezia eskaintzea. Saiatzen bazara produktu bereziago bat eskaintzen, merkatuan lekutxo bat izan dezakezu.

Turismo azoketara joan ohi zarete Tolosaldea Tourretik. Horrek gero eragina izaten du bisitari kopuruan?

Egia esan promozioen emaitzak neurtzea askotan zaila izaten da. Saiatzen gara inkestetan galdetzen nondik ezagutu gaituzten. Askok Internet erabiltzen dute gaur egun informazio iturri gisa. Eta gurera etortzen den norbait normalean ez da etortzen Tolosaldera, Euskadi edo Gipuzkoa ezagutzera baizik. Bisitariak Euskadira etortzeko erabakia hartzen du eta gero guk egin behar duguna da gure burua erakargarri egitea eta gure zerbitzuak eskaintzea. Kostatik gertu gaude, hiri-burutik gertu, baina landa eremu bat ere bagara.

Izaskun izena dutenek euren eguna ospatuko dute izen bereko auzoan

A. Imaz Ibarra

Egun guztiko jaia antolatuta dute Izaskun izena duten emakumeek, Izaskun Eguna ospatzeko. Festa Ibarako izen bereko auzoan izango da, hilaren 18an, igandean.

12:00etan VIII. Toka Txapelketa jokatuko dute, egunari hasiera emateko. Ondoren, meza entzuteko aukera egongo da Izaskungo Ermitan. 14:30ak inguruan, bazkaltzeko elkartuko dira Izaskun jatetxean. Bazkarira joateko, 943 67 59 27 zenbakira deitu behar da, goizez eta osteguna baino lehen. Bazkalostean, Iñigo Perurena eta bere orkestra ariko dira giroa alaitzen.

→ Laburrak

Txartelak salgai Alliriko festako bazkarirako

TOLOSA ▶ Alliri auzokoek festa eguna antolatu dute hilaren 24rako. Besteak beste, auzo bazkaria egingo dute. Horretarako txartelak salgai daude Alliri tabernan hilaren 18a arte. Hel-duek 15 euro ordaindu behar dituzte eta haurrek sei euro.

Festei buruzko balantzea egiteko bilera, bihar

IBARRA ▶ Festa Batzordeak dei egiten die herritar guztiei, bihar, osteguna, 19:00etan udal-etxean egingo den bilera. Bertan herriko festetako balantzea egingo dute.

Euskara ikastaroentzako izen-ematea zabalik

AMEZKETA ▶ Ilkasterre berriaren batera laster hasiko da euskara ikastaroa ere Amezetan. Aurreko ikasturtean hainbat mailetako taldeak sortu ziren. Euskara Batzordetik azaldu dutenez, «gustura aritu ziren eta pozik daude ikasitakoarekin. Aurtan jende gehiago ere animatzea espero dugu. Eta azaltzen diren beharren arabera antolatu nahi ditugu taldeak eta saioak». Horregatik, euskara ikasteko, hobetzeko edo laguntzeko interesa dutenek 688 631 952 telefono zenbakira deitu dezakete iraila amaitu baino lehen. Ikastaroak urrian hasiko dira.

Jubilatu eta pentsiodunek beraien eskubideak defendatzeko ikasturte berria hasi dute Tolosako Kultur Etxean; hilero herri ezberdinetan elkartzen dira batzarrak egin eta erabakiak hartzeko.

Helduak ere borrokan tinko

Eneritz Maiz Tolosa

Jubilatu eta pentsiodunek, ikasturte berria hasi zuten atzo goizean, Tolosan, LAB sindikatuak deituta. Kultur Etxean elkartu ziren hilero egiten duten batzarra egiteko eta beraien eskubideen defentsan lan egin asmoz. Dagoeneko lau urte eta erdi daramatzate lanean. Oporren bueltan, atzo izan zuten lehen batzarra. Garbi dute, jubilatuek eta pentsiodunek «borrokan tinko» jarraitu behar dutela. «Kopagoari eta pentsioen izozteari ezetz esaten diogu; zahar-etxe publiko gehiago, pentsio duinak eta alargunen pentsioak %70ekoak izatea nahi dugu; eta erreformak miseria direla argi utzi nahi dugu», argitu zuten LAB sindikatuko pentsiodun eta jubilatuek.

Aurreko aktaren errepasoa egin ostean, jendeak hitza hartzeko aukera izaten du batzarretan. Eskualdeko jendeaz gain, Azpeitia, Andoain, Eibar, Soralue, Oñati, Segura, Ataun, Bergara, Errenteria, Donostia,... herriak izan dira ordezkatuak, eta ikasturte berria ia 50 lagun elkartuz hasi dute.

Udalekin lan egiteko prest

Maiatzeko hauteskundearen ostean, udal ordezkarri berriak daude herrietan. Hori dela eta, jubilatuek eta pentsiodunek egin beharreko lehen lanetako bat, gizarte zerbitzuei dagokion udal ordezkariekin elkartzea dela argitu zuten. Dagoeneko batzuk jo dute bere herriko udalaren atea, eta batzarraren esperientziak trukatu zituzten azkoan.

Herri bakoitza mundu bat da, eta lehenik eta behin, herriaren egoera zein den argitu beharko dute: zaharren etxeak, jubilatuen elkarteak, egoera ekonomikoa,... «Zer garen eta nora goazen ahaztu gabe, gure mezua zabaldu eta luzatu behar diegu udaletxeetan» azpimarratu zuten. «Gauzak kon-



Eskubideen defentsarekin jarraitzeko, ia 50 lagun elkartu ziren Tolosako Kultur Etxean, atzo. E. MAIZ

pontzera goaz, eta parte hartuz laguntzera», gaineratu zuten. «Sinesgarritasuna lortu behar dugu», nabarmendu zuten.

Gizarte zerbitzuak lagun

Lan ildo asko daude jorrazteko, baina jubilatuek eta pentsiodunek, gizarte zerbitzuen barruan, heldu eta jubilatuen eskubideak aldarrikatu behar dituzte. Horren barruan, emakumearen egoerari ere heldu behar diotela garbi adierazi zuten. Esaterako, udal eta foru ordenantzetan, bereizketak positiboko proposamenak eginez. Lehenartean artean berriz, «zaharren egoitzak, etxer-etxeak laguntzak, menpekotasun legea,...» aipatu zituzten.

«Zerbait lortuko bada, mugitu egin beharra dago, eta herrigintza bultzatu behar dugu», argitu zuten LABeko ordezkariek. Urtea bukatzerako udal aurrekontuak onartzen direla eta, heldu eta pentsiodunek, beraien herrietan presente egon behar dutela azaldu zuten. Gizarte zerbitzuak publikoak eta kalitatezkoak izan behar dute.

Era berean, osasun zerbitzuak, unibertsalak, publikoak eta kali-

tatezkoak behar ditugula aldarrikatu zuten; «kopagoa, lehendik ordainduta duguna berriro ordaintzea litzateke» gaineratu zuten.

Baina beraien lana herrira eta udaletxeetara bakarrik ez dute mugatu nahi. Gipuzkoako Foru Aldundian ere atea joko dute. Eta hori aipatzean eztabaida sortu zen bilkuran; nola, nork eta zer eskatu behar duten garbi eduki behar dutelako. Beraiek ere etxeko lanak ongi egin nahi dituzte, eta gaia, Ordizian egingo duten batzarrera atzeratzea erabaki zuten.

Pribatizazioa hizketa gai

Batzarraren azken puntuan, Gipuzkoako Kutzaren bankarizazioa izan zuten hizketagai. Kezka agertu zuten, egin nahi dutenaren aurrean, eta «pribatizazioaren aurka» daudela garbi utzi zuten.

Era berean, zenbait udaletxeetan egin diren pribatizazioak ere salatu zituzten, eta aurrera begira, udaletxeetan egin nahi diren kontratu moten gainean egoteko beharraren garrantzia ere aipatu zuten bilkuran. Zaharren egoitze-

↓ Deialdiak

IRAILAK 23, OSTIRALA

■ **Elkarretaratzea.** Kutzaren bankarizazioa dela eta, protesta egingo dute Donostian.

URRIAK 26, ASTEAZKENA

■ **Batzarra.** LAB sindikatuko Gipuzkoako jubilatuek eta pentsiodunen hurrengo batzarra Ordizian izango da.

■ **10:30. Plazan 10:00etan** elkartuko badira ere, batzarra 10:30ean hasiko da.

tatik hasi eta garbiketa hitzarmenaraino.

Kutzaren bankarizazioa dela eta, protesta egitearen garrantziaz ere hitz egin zuten, eta guztien artean, bozketa egin behar dutenean, hau da, hilaren 23an, elkarretaratzea egitea erabaki zuten Donostian. Lekua eta ordua adostu, eta deialdia luzatuko dutela azaldu zuten.

Bi orduko batzarraren ostean, eta etxeko lanak zeintzuk diren apuntatuta, elkarretaratzea egin zuten Trianguloa plazan, *Gure eskubideak defenda ditzagun, borrokan tinko* lelopean. Aldarrikapenerako mezuekin batera, bertsoa ere egingo dute jendearen artean banatzeko: *Bizi guztia lanean, beti gero konpentsatzen/ Eta iritsi ta gero, ez dugu ezer ulertzen. / Jubilatuek eta alargunak, nola gaituzten baztertzen. / Eta Madrilen eroso, gure kasatik lapurtzen. / Hitz politekin ez dugu pentsio duinik lortzen. Eta ez dugu lortuko, ez badugu borrokatzen. Hortik gure deiadarra, LABeko kideei zabalitzen / Askok gura Euskal Herrian, ta hasi gaitzen biltzen.*

Xakean ikasi edo jolastu nahi duenak izena emateko aukera du, gaur

Udaletxeko arkupeetan egongo dira 17:15etik 19:15era; hilaren 21ean eta 28ean ere aukera izango da

E. Maiz Anoeta

Xakeko ikasturtea urriaren 3an hasiko da. Xake txokoa jolasten ondo pasatzeko aukera dago LH1 eta LH6 bitarteko ikasleen familientzat. Ludikoa izango da, eta ez da derrigorrezkoa ostiralero joatea. Ostiraletan 17:15etik 20:15era Hozpel Kaleko udal lokalean elkartuko dira ikasturte osoan zehar, eta 20 euro ordaindu beharko da.

Ikastaroa udalak antolatuta du LH1 eta LH2ko ikasleentzat. Urriaren 3tik abenduaren 20a izango da, ikastolan. Hiruhilabetea 20 euro kostako da eta astelehenean, 13:45etik 14:45era edo astearteetan, 17:15etik 18:15era aukeratu beharko da. LH3tik aurrera, Ikastolak antolatuta, eskola kirola barruan, doan da. Liga berriz, LH3tik aurrera, urriaren 4tik abenduaren 20a arte, astearteetan 18:30etik 19:30era Hozpel kaleko lokalean izango da. Hiruhilabetea 20 euro kostako da.

Izena emateak, gaur, hilaren 21ean edo 28an egiteko aukera dago. 17:15etik 19:15era. Udaletxeko arkupeetan egongo dira.

San Miel Jailetako danborradako lehen entsegua ostiralean

Helduentzat izango da ostiraleko entsegua; 19:00etan kulturgunean elkartuko dira

E. Maiz Irura

Irurako San Miel Jaia hilaren 23an hasiko dituzte danborradarekin. Izena eman dutenek entseguak egin beharko dituzte. Helduek lehen zita ostiralean, hilaren 16an izango dute. 19:00etan kulturgunean elkartuko dira.

Bi entsegu orokor egingo dituzte; bata, hilaren 19an eta bestea, hilaren 21ean. 19:00etan izango dira, kulturgunean.

Calidad Peugeot

Peugeot Sarean, prezioa eta kalitatea parean

Kalitatea: Zerbitzu profesionalizatua / Doako azterketa 29 puntutan / Pneumatikoetan bermea
Prezioa: Eskatu aurrekontua eta lasaitasunak gehiago ez duela balio ikusiko duzu.

Eskaintzak ondorengo markentzat balio du:

FLEXICRÉDITO 24 HILABETETAN ORDAINITZEKO AUKERA

PEUGEOT

TOLOSA MOTOR, S.A. San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

Hilaren 23a izango da XIV. HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzeko azken eguna. Irudiak 'thargazkiak@hitza.info' helbidera bidali behar dira.

Argazki Lehiaketa pil-pilean

Eredakzioa Tolosa

Jakingo duzun bezala irakurle, abian da jada XIV. HITZA Argazki Lehiaketa. Orain arte jasotako irudiak *tolosaldea.hitza.info* helbidean ikusi ahal dira, eta aurrerantzean jasotakoak ere bertan izango dira ikusgai.

Hamalagarren edizio honean ere hiru sari daude jokoan. Lehenengoak Bizkaiko landetxe batean bi pertsonentzako bi gaue-tako egonaldia irabaziko du, bigarregoa Tolosako Karlis dendan argazki erreportajea egiteko aukera izango du, eta hirugarrenak, Tolosako Astelehena jate-txean bi lagunentzako otordua irabaziko du.

Irailak 23 arte

Argazkiak bidaltzeko azken eguna hilaren 23a izango da, ostirala, eta aipatzekoa da partaide bakoitzak udako oporraldietako argazki bakarra bidali dezakeela. Irudiak *thargazkiak@hitza.info* helbidera, edota posta arruntez Tolosako Araba etorbideko 5-atzea helbidera bidali behar dira.

Argazkia bidaltzerakoan egilearen izen-abizenak, telefono zenbaki bat, eta argazkia non atera den argitu beharko da, azalpen txiki baten bidez.

Harpidedunen botoak

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO epaimahaiak jasotako lan guztiak ikusi eta zortzi aukeratu-ko ditu. Argazki finalistak hilaren 28ko egunkarian argitaratu-

ko dira, eta ondoren, harpidedunek, urriaren 5a arte bozkatu ahal izango dute zein den gehien gustatzen zaien argazkia.

Harpidedunek beren bozka *thargazkiak@hitza.info* helbidean eman ahal izango dute, kodea, eta gehien gustatu zaien irudiarren zenbakia emanda. 943 65 56 95 telefono zenbakira deituta ere bozka eman ahal izango da. Ondoren, bozka eman duten harpidedun guztien artean, HITZAKO produktuen sorta bat zozketatuko da.

Hiru argazki irabazleak urriaren 7ko egunkarian argitaratuko dira. Baita HITZAKO produktuen sorta irabazi duen harpidedunaren izen abizenak ere.



Egoitz Bengoetxeak Kroaziako irudi hau bidali du: «Ilunabarreko freskura aprobetxatuz 'jolasean' ari ginela aterako argazkia da». E.B.



Frantziako herri txiki batean paseatzen zeudela ateratako argazkia aukeratu du Oihana Caminosek, «ilunabarraren argazki eder honekin amaitu ziren aurtengo gure opor egunak», argitu du. o.c.



Joseba Amianok azalpen hau eman du: «Frantzia iparraldeko La Côte de Granit Rosen ateratako irudia da. Berritxo ere itzultzeko moduko tokia, zalantzarik gabe». Iker Bea, aldiz, Nafarroan geratu da: «Cintruengon igerileku guztia libre eta aitonaren gainetik salto egin behar, kar, kar, kar...». J.A.-I.B.





Tolosa, IRAILAK 15, 16, 17 eta 18 2011
ordutegia: 18:00 - 24:00



TOLOSA
943 670 040



VILLABONA
943 694 873

Inoizko parte-hartzaileena izan da aurtengo Oporrak Bakean ekimena

8 eta 12 urte bitarteko
18 haur saharar izan dira
eskualdean udan;
hamabi urte bete ditu
aurten ekimenak

Iñigo Terradillos Tolosaldea

Beste behin ere haur sahararren bisita izan du uda honetan gure eskualdeak. 8 eta 12 urte bitarteko gaztixoek bi hilabete bikain igaro eta gero, gustura itzuli dira euren heimetara. Ekimenaren antolatzaileak ere «pozik» azaldu dira aurtengoak eman duenarekin, gutzia espero bezain ondo joateaz gain, inoizko parte-hartzaileena izan delako.

Tolosaldea Garatzeneko Mi-
grazio eta Aniztasuna Sailetik
kudeatu duten Opporak Bakean
ekimenak hamabi urte bete ditu
aurten, eta ahalduz joatetik hara-
tago, indarra hartuz doala esan
daiteke, aurtengoan Tolosaldera
inoiz baino haur gehiago iritsi
baitira Aljeriak Tinduf hiriaren
ondoa kokaturiko errefuxia-
tuen kanpalekuetatik.

Hain zuzen ere, 18 haurrei egin diete harrera eskualdeko 16 familiak. Tolosan 9 neska-mutil izan dira, Villabonan 5, Ibarra 2, Anoetan 1 eta Altzon beste 1.

Kristina Morales Tolosaldea Garatzeneko teknikariak programa honetan aurtan parte hartu duten harrera familiei eskerrak eman dizkie, eta baita Altzoko udalari, Anoetakoari, Ibarraakoari, Villabonakoari eta Tolosakoari ekimen finantzatzeagatik. «Batzen da besteen parte-hartzerik gabe ezingo litzateke aurrean eraman, eta haur hauek ezingo lukete uda gure artean igaro, beraz, gure eskerrik beroena».

Uda ahaztezinak

Haur hauek euren bizitokietan igaro ezin duten uda igaro ahal dute Oporrak Bakean programari esker. Izan ere, eskualdean egon diren egunetan hamaika ekitaldiz gozatzeko aukera izan



Ekzer-eskuin: Kristina Morales eta Ana Trapero (Tolosaldea Garatzeneko teknikariak) eta Miren Balerdi eta Laura Santos Alzoko eta Villabonako udaletako ordezkariak. I. TERRADILLOS

dute. Hala nola, Txiki Park-en izan dira, Igeldon, Kutxaespazioan, hainbat herriko festetan edota Zuloaga Txikiko natur eskolan. Horrez gain, noski, euren familia hartzaileekin igerilekuaz, hondartzaz edota mendiaz, esaterako, gozatu ahal izan dute.

Halaber, gurera etorritz, basamortuko udako bero izugarria ekidetea lortzen dute, osasun azterketa sakonak egiten zaizkie, dituzten elikadura arazoei aurre egiteko ondo elikatzen dira eta beste kultura eta errealitate bat ezagutzeko aukera izaten dute.

Konpondu gabeko gatazka

Haur sahararrek Tolosako Sanjoanetakotxupinazoarekin hasi zuten egonaldia, eta euren omenez Tolosako Zerkausion egin zen festarekin amaitu. Iririfartsu euren familietara itzultzeagatik, baina, triste euren bigarren familiari agur esan beharragatik; bi sentimenduen horiek uztartu ziren agurrekoan beste urte batez.

Ekimen honen beharrik ez izatea litzateke antolatzaileen esanetan guztien nahia. «Marokorkin duten gatazka amaitu dela eta euren benetako lurretara itzuli direla esan nahiko luke horrek; hori ahalik eta azkarren gertatzea nahiko genuke».



Goian sanjoanetan txupinazoa botatzen, behean eskaladan. HITZA

Bihartik aurrera Alurr Dantza Taldean izena emateko aukera zabalik

17 taldetan daude
banatuta ikastaroak;
lau urtetik gorako
edonork
parte hartu ahalko du

Erredakzioa Ibarra

Uda amaitzeaz da, eta ikasturte berria hastear da Alurr Dantza Taldearentzat. Bihar hasi eta irailaren 30era arte izango da euskal dantzen ikastaroetan izena emateko aukera. Dantza taldetik diotenez, aurten ere aukera «oparoa» eskainiko dute, 4 urtetik gorako edonork parte hartu ahaliko duelarik.

17 taldetan banatu dituzte ikas-tarokak. Besteak beste, mutilen taldea Ifaki Agirrerekin ariko da; Aiert Beobide koreografo eta dantzari profesionala beste hainbat taldez arduratuko da; Eider Epel-derekin beste talde batzuk ariko dira; eta Alurr taldeko dantzarien beste zenbait talde ere izango dira. Informazio gehiago eskuratu edota izena emateko Ibarako kulturetixa (943 67 03 99) jo beharko da, Alurr taldeko telefono zenbakira deitu (635 75 70 48) edo www.alurr.net webgunea bisitatu.

Bestalde, udan herriz herri ibili da Ibarrako dantza taldea. Ibarra-ko jaietan, esaterako, *Oinazez* ikuskizuna eskaini zuen, «arrakasta handiarekin», eta horregatik eskerrak eman nahi dizkie guztiei, «jasotako babesarengatik». Datozen asteetan ere, hainbat emanaldi izango ditu taldeak. Larunbat honetan III. Euskal Herria Egunean ariko da, Ibarra, Lizarra eta Algortako herritarren arteko jaiari. Hurrengo egunean, irailaren 18an Usurbilgo festetan dantzatuko du; urriaren 9an Alurrr taldeak ikuskizun bat aurkeztuko du Seguran, Dantza Solte Txapelketan, eta azaroan, Oreka TX taldearekin ariko da Alurrr Tolosan.

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitzaz** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

tolosaldea.hitza.info
leitzaldea.hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea, atzea · 20400 Tolosa

— — — — —
beharrezkoa da datu guztiak betetzea

- Izen-abizenak:

- NA:

- **anbidea:**

- Jaioteguna:

- Helbidea:

- Herria:

■P.K.:

■Tel.:

- Posta elektronikoa:

- Kontu zenbakia:

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa, betetarik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-ren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla, enpresak dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezaztatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzea. Idela gogin nahi izanez gero, idatziz helbide honetara: TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M. - Araba etorbidea 5 beheko, 20400 Tolosa, edo harnidietza@hitza.info

Iñigo Terradillos Leitza

Makina bat lesio izan ditu Abel Barriolak bere ibilbidean. Guztietatik osatu eta bere mailarik onena emateko gai dela erakutsi du leitzarrak. Hori egin asmo du oraingoan ere. Apirilaren 17an Xalarekin batera Binakako Txapelketako finala jokatu behar zuen, baina lesio bat eta desadostasunak tarteko Mikel Beroizek hartu zuen bere lekua Olaizola II.aren eta Begoñaren aurkako partidari. Datorren astelehenean, hilaren 19an, itzuliko da pilotalekura, Adarragara, hain zuzen, Logroñoko San Mateo Txapelketan. Berritoki ere goiko postuetan bere lekua izatea da bere asmoa.

Nola ikusten duzu zure burua?

Poza sentitzen dut. Lesio baten ondoren helburua berritoki ere txuriz janztea izaten da, eta une hori laster iritsiko da. Aldi berean, kezka pixka bat ere badut, joko ez bainago oraindik oso ongi. Baina, hori guztiz normala da nire egoeran. Garrantzitsua esku-muturrak ongi erantzutea da, eta hortik aurrera etorri behar duena etorriko da.

Fisikoki nola zaudela esango zenuke?

Ongi nago, baina kirolean sasoiaren egoteko azken puntua konpetizioak berak ematen ditu. Beraz, fisikoki oso ongi egonagatik ere, konpetizio edo lehiaren erritmoa beste gauza bat da, tentsioa, aurkariaren erritmoa, pilotak... desberdinak baitira. Konpetizioak berak jartzen zaitu sasoiari.

Orain arteko entrenamenduetan zer moduz aritu zara?

Ebakuntzaren ostean denbora askoan egon naiz errehabilitazioan, baina entrenamenduetan oso ondo erantzun du esku-muturrak, ez dit arazorik eman. Hala ere, esan bezala, kezka txikiren bat beti izaten duzu. Dena den, ziur nago ondo erantzungo duela partidetan ere.

Zure buruari zein helburu jarri dizkiozu?

Niretzat une honetan garrantzitsua da ikustea esku-muturrak ongi erantzuten duela. Hori ikusten dudanean, betiko bideari e-



HITZA

Abel Barriola • Pilotaria

Apirilaz geroztik lesionaturik egon da; Binakako Txapelketaren atarian geratu izana «kolpe handia» izan zen, baina bere burua ongi ikusten du, «goian daudenekin lehiatzeko moduan».

«Mailarik onenean egon eta txapelak irabazteko lan egitea da nire xedea»

tsiko diot, hau da, entrenamenduekin jarraituz, ahal dudana maila onena emanez eta lehenengo mailako pilotariekin lehiatzen.

Nola gogoratzen dituzu duela bost hilabete gertatutakoak?

Sekula ahazten ez duzun une horietako bat izan zen. Binakako Txapelketako finalera lan handia egin ondoren iritsi ginen Xala eta biok. Xalax txapelketa ikaragarria egin zuen, eta ni ere ongi ari-

tu nintzen. Finalera ailegatu bittarte oso bikote sendoa osatu genuen, garaipen gehien batu genituelarik. Zoritxarrez, azken unean, behin sailkatutik ginela, bikietan zaintiratu bat izan nuen.

Finala ezin zenuen modu horretan jokatu, eta enpresak ez atzeratzea erabaki zuen.

Astebeteko atzerapena behar nuen errekupeatzeko, eta enpresak ez atzeratzeko erabakia hartu

zuen. Une horietan tristura eta pena handia sentitu nuen. Inola ere merezi ez nuen erabakia izan zen, beraz, enpresak hanka sartu zuen nire ustez. Hor geratzen diren gauzak dira. Izan ere, binakako final batera iristea oso zaila da, irabazteko aukera genuen, eta azken unean jokatzeko ez uztea pena izugarria da.

Kolpe handia, beraz.

Baina, aurrera begiratu beharra

dago. Ezin dut duela bost hilabete gertatutakoa buruan dudala kantxara atera. Ahaztu ez, baina alde batera utzi behar dut hori.

Txapelketa handi bat irabaztea litzateke agian egokiena ahalik eta azkarren konfidantza hartu eta gertatutakoak ahazteko, ezta?

Bai. Pilotari baten desira, azken batean, hiru txapelketa handietan ahal diren gehienak irabaztea da. Eta horietan finalera iristea ere arrakasta izaten da. Ni horretan saiatuko naiz, eta horretarako nire mailarik onena ematen ahaleginduko naiz. Noski, aurkariak hor daude. Guztiek entrenatzen dute gogor ahal dutena ema-

«Esku-muturrak ongi erantzutea da une honetan garrantzitsua»

teko. Azkenean, ez dago denentzako lekurik, eta onenak baino ez dira iristen finalera. Gustatuko litzaidake onenen artean egotea. Baina, hori erabakitzen duen epailea kantxa bera izaten da. Beraz, denborak esango du. Nik, esan bezala, lan egingo dut mailarik onenean egoteko, eta, zergatik ez, txapelak irabazteko.

Txapelketetatik at izan zaren denboraz zer balantze egin duzu?

Uda urtero izaten den modukoa izan dela esango nuke. Partida onak ikusi ditut, eta baita ez hain onak ere. Orokorrean uda ona izan da.

Zein pilotari nabarmenduko zenuke?

Ez nuke bat nabarmenduko. Uda hasieran asko gustatu zitzaidan Albiu. Etorkizunean asko eman dezakeen atzelarietako bat dela ikusi da. Jende gazte ugari dator indartsu, eta horietatik Olaetxea azpimarratuko nuke. Askok gustatu zait, lehen emandako salto handia baieztatzen du. Heldutasunera iritsi da. Bestalde, Jaunarena tentsiorik oraindik sartu behar ez zaion pilotaria da nire ustez. Goi handia du, baina urte batzuk behar ditu bere mailarik handiena lortzeko. Olazabal ere azpimarratuko nuke.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIK

■ **Ibarra.** Hilaren 17ko Euskal Herria Egunekeo bazkarirako txartelak Danon Txokoa eta Atari tabernetan eskuratu daitezke. Helduen txartelak 12 euro balio du, eta haurrenak 6 euro.

KIROLA

■ **Villabona.** Aizkardi mendi taldeak Pirinioetara joateko irteera antolatu du astebururako. Izena emateko 649 717 182 telefono zenbakira deitu behar da.
■ **Tolosa.** Uzturre Alpinok Burgosko Pineda de la Sierra joateko irteera antolatu du. Izena emateko deitu 943 65 27 89 telefonora, edo idatzi alpinouzturre@hotmail.com-era.
■ **Tolosa.** Oargi mendi taldeak hilaren 16, 17 eta 18rako arroilen jaitsiera egiteko irteera antolatu du. Izena emateko deitu 688 698 642 telefonora, edo idatzi info@oargi.org helbidera.
■ **Leitza.** Mendibil eta BTT taldeak igandean Uribarri-Ganboara joateko irteera antolatu dute. Oialde partetik irtengo dira 08:00etan. Izena emateko idatzi mendibilaurrera@hotmail.com. Astiz eta Maimur liburu-dendetan ere eman daiteke izena.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 45.
■ **Lekunberri.** Azpiroz M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Leitza



20 LAGUN INGURU, AUZOLANEAN

Larunbatean 20 bat leitza erreka bazterrek garbitzen aritu ziren auzolanean. Goizean goiz bildu ziren eta bi taldetan banatuta egin zuten lan. Batzuk, Erasote auzoko Batan presan aritu ziren, eta besteak Astibi baserri inguruan hasi ziren lanean.

Aitor Etxarri zinegotziak azaldukoaren arabera, «uste baino zabor gehiago» jaso zuten eguerdia bitarte, udaleko kamioneta bete zutelarik. «Plazan utzi genuen kamioneta herritarrek pilatzen den zabor guztia ikusi eta kontzientziatzeko». HITZA

Agurak



Zorionak!

Maren Ayerza Labaien (Amezketa).

Gaur 3 urte. Zorionak eta ondo pasa denon partetik.



Urte askoan!

Maddi Lopetegi Serrano (Ordizia).

Gaur 9 urte. Zorionak eta muxu asko-etxeko guztien partetik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●●●●● **agurak**



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO
hitza

XIV. HITZA Udako argazki lehiaketa

1. Saria

Bakioko Basarte landetxean bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia

2. Saria

Tolosako Karlis estudioan argazki erreportaje bat

3. Saria

Astelena jatetxean bi pertsonentzako otordua



Pertsonako argazki bakarra bidali daiteke thargazkiak@hitza.info helbidera

Bidali zure argazkiak irailaren 23a bitarte!